

GAUAREN USAINA

6

uzta gorria

Bat



Leiho zabalduaren kontraleihoak halako indarrez jo zuen hormaren kontra non pistola-tiro bat baitzirudien, eta Montalbano, une hartantxe tiroketa batean sartuta zegoela amets egiten ari zelarik, izerditan blai eta hotzak izozturik esnatu baitzen, aldi berean. Madarikazio batean jaiki eta korrika joan zen ixtera. Hain ipar haize izoztua eta gogorra jotzen zuen, non, goizeko koloreak bizitu ordez, beti egin ohi zuen bezala, oraingo honetan kendu egiten baitzituen, erdi ezabatuz, eta zirriborroak edo, hobeto esateko, amateur batek igandeko irtenaldi batean egingdako akuarela baten arrasto lauso batzuk baizik ez utziz.

Bistan zegoen udarak, dagoeneko zenbait egunez hil-hurren zegoenak, bere burua hiltzat uztea erabaki zuela gauean, ondoren zetorren eta berez udazkena izan beharko zukeen urtaroari lekua uzteko.

Izan beharko zukeen, zeren izatez, sumatzen zenez behintzat, negua baitzirudien udazken hark, negu gogorra gainera.

Berriro oheraturik, Montalbanok desagertuak ziren erdiko urtaroei eresi bat egitea baimendu zion bere buruari.

Zer bilakatu ote ziren? Gizonaren bizimoduaren eritmo geroz eta bizkorragoak arrastaka eramanez, egoera berrira egokituak ziren haiek ere, beharbada: pausaldi bat esan nahi zutela ulertuko zuten, nonbait, eta desagertu egin ziren, zeren, gaur-gaurkoz, ez dago pausalditarako lekurik aditz-infinitiboz elikatzen den lasterketa geroz eta zoratzekoago honetan: jaiotze, jan, ikasi, larrua jo, produzitu, zapping egin, eskatu, saldu, kaka egin eta hil. Infinitiboak, baina nanosegundo bat irauten dutenak, ikusi eta desagertu, dena bat. Ez al zen izan, ordea, bestelako aditz batzuk existitzen ziren garai bat? Pentsatu, hausnartu, entzun eta, zergatik ez?, nagikerian aritu, lokamuska egin, alferrean egon? Begietan ia malkoak zituela, bere aitaren sasoi arteko jantziez eta soingainekoaz gogoratu zen Montalbano. Eta horrexek gogorarazi zion, beharbada, hobe zuela neguko arropa jantzi, bulegora joateko. Animatu, jaiki eta arropa astunak zeuzkan armairuaren atea zabaldu zuen. Ia kintal bete naftalinaren usainak jo zuen, gutxien uste zuela. Lehendabizi arnasak huts egin zion, gero begiak malkoa zeriela jarri zitzaizkion eta azkenean doministikuka hasi zen. Hamabi doministiku egin zituen segidan, mukiak sudurretik behera zintzilik zituela, burua nahasturik, eta bularkaiolak geroz eta oinaze handiagoa egiten ziola. Ahaztuta zeukan Adelinak, garbiketako emakumeak, errukirik gabeko borroka bat zeramala sitsen kontra, beti galduan

ateratzen bazen ere. Komisarioak uko egin zion bere asmoari. Armairua itxi eta komodatik jertse babesgarri bat hartzera joan zen. Han ere gas itogarriak erabili zuen Adelinak, baina oraingo honetan Montalbanok bazekien nola zeuden gauzak, eta arnasari eutsiz geratu zen.

Galeriara atera eta mahai gainean utzi zuen jertsea, aire zabalean kirats haren puska bat behintzat ea joaten zitzaion. Garbitu, bizarra moztu eta jantzi ondoren, galeriara joan eta jantzi nahi izan zuenean, jertserik ez. Zein eta Liviak Londresetik ekarritako berri-berri huraxe!. Eta nola azaldu behar zion orain handik pasatzen ari zen putakumeren batek ez ziola eutsi tentazioari, esku bat luzatu zuela, eta agur beste bat arte? Andregaiarekin izan behar zuen solasa, gertatu izan balitz bezalaxe, berdinberdin imajinatu zuen.

–Hara! Espero izatekoa zen!

–Aizu, barkatu, baina zergatik?

–Nik eman nizulako opari!

–Horrek zer du, bada, ikustekorik?

–Bai horixe, badu ikustekorik! Esango dizut, zer duen ikustekorik! Zuri bost axola, nik egindako opariak! Hor duzu ekarri nizun alkandora ere...

–Hura badaukat oraindik.

–Badakit badaukazula, baina ez duzu inoiz jantzi! Baina Montalbano komisario famatuak, lapur koxkor batek lapurretan egiten utzi! Lur azpian ezkutatzeko modukoa!

Orduantxe ikusi zuen jertsea. Ipar haizeak arrastaka zeramala; hondartzan itzulika zihoan, hondarra olatu bakoitzean bustitzen zen lekutik geroz eta hurbilago.

Baranda gainetik jauzi egin, eta lasterka abiatu zen, galtzerdiak eta oinetakoak hondarrez bete zitzaizkion, jertseari heldu eta jantzi harekin bereziri amorratua zirudien olatu bati kentzeko ozta-ozta iritsi zen.

Itzultzen ari zen bitartean, haizeak begietan sartzen zion hondarrak erdi itsuturik, etsi beharra izan zuen jertsea artile mordo busti itxuragabe bat bihurtu zela. Etxeratu bezain laster, telefonoak jo zuen.

–Egunon, laztana. Zer moduz zaude? Gaur etxean ez naizela izango esan nahi nizun. Hondartzara noa, lagun batekin.

–Bulegora ez duzu joan behar?

–Hemen jai eguna dugu, zaindariaren eguna da.

–Hor eguraldi ona duzue?

–Zoragarria.

–Ba, ondo pasa, orduan. Gauera arte.

Horixe besterik ez zuen behar, eguna gozatzeko! Bera hotzak dardaratan, eta Livia eguzkitan etzanda gozamenetan! Munduak lehen bezala funtzionatzen ez zuela ongi erakusten zuen beste froga bat. Orain iparraldeak beroak ito beharrean zeuden, eta hegoaldera izotza, hartzak eta pinguinoak iristen.

Armairua berriro zabaltzera zihoan, arnasari eutsiz, telefonoak berriro jo zuenean. Une batez zalantzan geratu

zen, gero naftalinen usainak eragingo zion urdaileko ondoeza gogoratzeak telefonoaren entzungailua jasotzeko konbentzitu zuen.

–Bai?

–A, *dottori, dottori!* –esan zuen Catarellaren ahots urratu eta arnasestutuak–. Berori al da, berori pertsonalki?

–Ez.

–Norekin ari naiz orduan hizketan?

–Arturo naiz, komisarioaren anaia bikia.

Zergatik ari zen aluarena egiten gizajo harekin? Umore txarra zertxobait arintzeko?

–Benetan? –esan zuen Catarellak, harriturik–. Barka iezadazu, Arturo jaun bikia, baina *dottoria* ausaz etxean balego, esango al zenioke, mesedez, berekin hitz egin beharra dudala?

Montalbanok segundo batzuk joaten utzi zituen. Asmatu berri zuen gezur hura baliagarria gerta zekiokkeen, beharbada beste baterako. Orri batean idatzi zuen “nire anaia bikiaren izena Arturo da” eta Catarellari erantzun zion.

–Hemen nago, zer gertatzen da?

–A, *dottori, dottori!* Iskanbila ederra gertatu behar da! Berorrek ezagutzen du Gragano administratzaileak bulegoa zeukan lekua?

–Garganok, esan nahi duzu?

–Bai. Zer bada, nola esan dut bada? Gragano esan dut.

–Laga, laga; badakit non dagoen. Eta?

–Ba, gizon bat sartu dela errebolber batez armatuta. Fazio konturatu da, kasualitate hutsez deskuiduan handixe pasata. Badirudi han enplegatuta dagoen neskari tiro egiteko asmoa duela. Eta esaten du Graganok lapurtu zion dirua itzultzea nahi duela, bestela bertan akabatu duela emakumea.

Jertsea lurrera bota zuen, ostikada batez mahi azpira bidali zuen, eta berriro zabaldu zuen etxeko atea. Autora igotzeko denbora aski izan zen haizeak nerbiotakoa emateko.

Emanuele Gargano kontu-administratzailea, berrogei urte ingurukoa, iparramerikar film bateko heroi bat bezain gizon garai, eder eta dotorea, eguzkiak beti neurri-neurrian belztua, “exekutibo gorazaleak” esaten zitzaientzen enpresa-bizitza laburreko gizonen arraza hartakoa zen, bizitza laburrekoa zeren berrogeita hamar urte zituztenerako hain ahituta egoten baitziren non desmuntatu egin behar baitzituzten, asko gustatzen zitzaientzen esamolde bat erabiltzeko. Gargano administratzailea Sizilian jaioa zen, berak zioenez, baina Milanen luzaro egona zen lanean, eta han, berak zioenez hau ere, oso denbora gutxian finantza-espekulazioetako azti moduko baten fama irabazi zuen. Gero, behar zuen ospea lortu zuela iritzirik, Bolognian bere kontura hastea erabaki zuen, eta han, berak esaten zuenez hau ere, hamar eta hamar aurreztailei fortuna eta zoriona lortu zien. Bi urte pasatxo lehenago

Vigàtan azaldu zen, “gure zoritxarreko lur maite honen iratzarpen ekonomikoa” bultzatzeko, esaten zuenez, eta egun gutxitan Montelusako probintziako lau herri handitan zabaldu zituen bulegoak. Etorri errazeko gizona zen, inondik ere, topatzen zituen guztiak konbentzitzeko gaitasuna bazuena, aurpegian inprimaturik irribarre zabal lasaitzaile bat zuela betiere. Astebete eskualdean hara eta hona luxuzko auto ikusgarri eta distiratsu batean, larretxorrientzako ispilutxo baten moduko auto batean, ibili ondoren, aurreztuta zeuzkaten diruak bere esku utzi zizkioten ehunen bat bezero lortu zituen, adinez batez beste hirurogeitaka urtekoak. Sei hilabeteren buruan, erretiratu zahar haiek bildu, eta bihotzekoak emanda bertan geratzeko arriskuarekin, ehuneko hogeiko korritu bat eman zien. Gero, kontu-administratzaileak probintziako bezero guztiak Vigàtan bildu zituen, bankete handi baterako; haren bukaeran aditzera eman zien bazitekeela hurrengo seihilekoan korrituak handiagoak izatea, askoz handiagoak izango ez baziren ere. Hotsa zabaldu zen, eta jendea ilaran egoten zen herrietako bulegoetako leihatiletan, Garganori beren dirua hartzeko erregutuz. Eta administratzaileak, eskuzabaltasunez, onartu egiten zuen. Bigarren aldi hartan, dirua ahalik eta bizkorren egiteko gogoia zuten mutil asko ere batu ziren aguretxoekin. Bigarren seihilekoaren bukaerarako, lehenengo bezeroen korrituak ehuneko hogeita hiruraino igo ziren. Gauzak ezin hobeto zihoazen, baina laugarren

seihilekoaren bukaeran Emanuele Gargano ez zen azaldu. Bulegoetako enplegatuek eta bezeroek bi egunetz itxaron zuten, eta gero Boloniara deitza erabaki zuten, han egon beharko baitzukeen “Midas Erregea”ren zuzendaritza orokorraren egoitza, halaxe baitzuen izena administratzailearen finantza-elkarteak. Inork ez zuen erantzun telefonoan. Ikerketa bizkor bat egin ondoren, jakin zen “Midas Erregearen” lekuak, alokairuan hartuak, jabeari itzuli zitzaizkiola berriro, eta hura sutan zegoela, gainera, hainbat hilabetetan alokairua ordaindu gabe utzi ziotelako. Astebete ikerketak egiten alferrik igaro eta ez Vigàtan ez inguruetan kontu-administratzailearen aztarrenik ere ikusi ez zelarik, eta inbertitzaileen aldetik bulegoei behin eta berriro eta iskanbila handiz eraso ondoren, bi iritzi-eskola sortu ziren administratzailearen desagertze misteriozko hari buruz.

Lehenengoak zioen Emanuele Gargano, izenez aldatuta, Ozeaniako uharte batera joana zela, eta bapo zegoela han, emakume erdi biluziekin, beren konfiantza eta diruak eman zizkiotenen kontura.

Bigarren iritziaren arabera, administratzailea, zuhurtziaz gabe, mafiosoren baten diruaz baliatu zen, eta orain ongarrari bihurtzen ari zen gainean metro pare bat lur zuela, edo arrainen janari zen.

Montelusa eta probintzia osoan bazen, ordea, emakume bat bestelako iritzi bat zuena. Bat bakarra, Mariastella Cosentino, izenez.

Berrogeita hamar urtetik gora, mozkotea eta itsusi samarra; Mariastellak Vigàtako agentzian lan egiteko eskaera egin zuen eta, kontu-administratzailearekin berarekin solas labur bezain bizia izan ondoren, hartu egin zuten. Hori esaten zuten. Solas laburra, baina aski emakumea ugazabaz zeharo maitemintzeko. Eta lan hura Mariastellak zuen bigarrena zen, kontulari-diploma atera ondoren hainbat urtetan etxeakoandre izan baitzen, hasieran aitari eta amari laguntzeko eta gero aitari bakarrik, hil zen arte geroz eta erretxinagoa izan baitzen, baina huraxe izan zen, orobat, bere lehenengo maitasuna. Hain zuzen ere, kontzientziaz, jaió zenetik bertatik urrutiko lehengusu baten emazte izateko izendatu baitzuen familiak Mariastella; argazkitan baizik ez zuen hura inoiz ikusi, eta aurrez aurre ez zuen ezagutu, haurra zela hil baitzen gaixotasun ezezagun batez. Orain, berriz, beste era batera ziren kontuak, oraingo honetan Mariastellak askotan ikusi baitzuen bizirik eta hizketan bere maitea, eta hain gertutik non, bizarra moztu ondoko haren lozioa usaindu ere usaindu baitzuen goiz batean. Orduan egin behar zuenik burutik pasa ere inoiz egin ez zitzaion gauza bat egitera ausartu zen: autobusa hartu eta Fiacara joan zen, perfume-denda bat zuen senitarteko batengana eta, flaskoa flaskoaren ondoren buruko mina egin arte usainduz, bere maiteak erabiltzen zuen lozioa aurkitu zuen azkenean. Flaskotxo bat erosi zuen, eta gaueko mahaitxoan gordeta zeukan. Gau batzuetan, etxe hutsean bakar-bakarrik,

ohean esnatu eta atsekabe-sentsazio bat sentitzen zue-
nean, flaskoa zabaltzen zuen, urrina usaintzen zuen, eta
hala lortzen zuen berriro loakartzea, “Ondo lo egin, mai-
ttea” xuxurlatuz.

Mariastella konbentzituta zegoen Emanuele Gar-
gano administratzaileak ez zuela ihes egin bezeroek bere
esku utzitako diru guztiak eramanez, eta are gutxiago ma-
fiak hutsegiteren batengatik hil zuenik. Mimi Augellok
galdeketa eginik (Montalbanok ez zuen parte hartu nahi
izan ikerketa hartan, berak diru-kontuetan piperrik ere
ez zekiela esaten baitzuen), Cosentino andereñoak esan
zuen, bere iritzian, administratzailea une bateko amne-
siak jo zuela, eta berriro azalduko zela gutxien uste ze-
nean, mihi gaiztoak berriro isilaraziz. Eta halako suhar-
tasun argiz esan zituen hitz haiek, non Augellok berak ere
ia sinetsi egin baitzituen.

Kontu-administratzailearen zintzotasunean zuen fede
hark indarturik, Mariastellak egunero zabaltzen zuen bu-
legoa, eta bere maitea noiz itzuliko zain geratzen zen. He-
rriari barre egiten zuten denek haren bizkarretik. Kontu-
administratzailearekin konturik izan ez zuten guztiek,
jakina, gainerakoak, dirua galdutakoak alegia, oraindik ez
baitziren barre egiteko gauza. Bezperan Montalbanok ja-
kin zuen, Gallok esanda, Cosentino andereñoa bankura
joan zela, bulegoaren alokairua bere patrikatik ordaintzera.
Zer sartu ote zitzaion, bada, buruan, errebolberraz me-
hatxatzen zuen hari, gai hartan zer ikusirik batere ez zuen

gaixo haren kontra hasteko? Eta zergatik izan zuen hartzekodunak beranduko ateraldi eder hura, administratzailea desagertu eta hogeita hamar egun ingurura, Gargano kontu-administratzailearen biktima guztiak baretuta zeudenean, hain zuzen? Montalbano lehenengo iritzi-eskolakoa zen, kontu-administratzaileak denak izorratu eta ihes egin zuela ziotenen eskolakoa alegia, eta lastima ematen zion Mariastella Cosentinok. Agentziaren aurretik igaro eta han ikusten zuenean, leihatilaren atzean, bereizten zuen beiraren beste aldean, lotsa onez eserita, gero egun osoan ezin kenduta ibiltzen zen bihotzaren es-tutasun bat sartzen zitzaion.

Midas Erregearen bulegoaren aurrean hogeita hamarren bat pertsona zeuden, bizi-bizi hizketan eta keinuka, urduri, hiru udaltzainek urruti zeuzkatela. Komisarioa eza-gutu eta inguratu egin zuten.

–Egia al da gizon armatu bat dagoela bulegoan?

–Nor da, nor da?

Montalbanok oihuka eta ukondo-kolpeak banatuz lortu zuen bidea zabaltzea, eta azkenean sarrerako atearaino iritsi zen. Han gelditu zen, harritu samar. Barruan Mimi Augello, Fazio eta Galluzzo zeuden, bizkarretik eza-gutu zituen; dantza bitxi batean ari zirela ematen zuen: noiz soina eskuinerantz okertzen zuten, noiz ezkerrera, noiz pauso bat aurrera egiten zuten, noiz atzera. Hotsik

egin gabe beirazko atea zabaldu zuen, eta hobeto ikusi zuen eszena. Bulegoak gela zabal bakar bat zuen, erdian zurezko erakusmahai batek banatua, eta haren gainean beirate bat, leihatilarekin. Erakusmahaiaren beste aldean lau idazmahai zeuden, hutsik. Mariastella Cosentino bere betiko lekuan zegoen eserita, leihatilaren atzean, aurpegia oso zurbil, baina soseguz eta duin. Bulegoko bi eremuak erakusmahaietan bertan zabaldua zegoen zurezko atetxo baten bitartez komunikatzen ziren.

Erasotzailea edo dena delakoa, Montalbanok ez zekien nola definitu, atetxo haren tartean bertan zegoen zutik, enplegatua eta poliziako hiru kideak, denak destatzeko moduan. Laurogei urtetik gorako agure bat zen; segituan ezagutu zuen komisarioak: Salvatore Garzullo topografo estimatua. Partez nerbioen tentsioagatik eta partez Alzheimer nahiko aurreratuagatik, topografoak eskuan zuen errebolberrak –Buffalo Billen eta siuxen garaikoa, inondik ere–, hainbestearaino egiten zion dantza non komisariako gizonetakoren bat destatzen zuenean, denak urruntzen baitziren, ez zutelako asmatzen non joko zuen kolpe hark, ateratzen bazen.

–Putakume horrek ostu didan dirua nahi dut! Bestela hementxe akabatuko dut emakume hau!

Ordubetetik gora zeraman topografoak esaldi bera oihukatzen, ez hitz bat gehiago ez gutxiago, esaldi berbera, eta orain ahituta zegoen, ahotsik gabe, eta hitz egiten baino areago gargarak egiten ari zela ematen zuen.

Montalbanok hiru pauso egin zituen, erabakitasunez, bere jendea atzean utzi eta agureari eskua luzatu zion, aurpegi osoa hartzen zion irribarre bat eginez.

–Topografo jaun estimatua! Hauxe poza zu ikustea! Zer moduz zaude?

–Gaizki-gaizki ez, eskerrik asko –erantzun zion Garzullo, harriturik.

Baina segituan oneratu zen berriro, Montalbano bereganantz beste pauso bat egitera zihoala ikusi zuenean.

–Ez mugitu, bestela tiro egingo dizut-eta!

–Komisarioa, Jainkoarren, ez arriskatu! –tartekatu zen ahots sendoz Cosentino andereñoa–. Inork Gargano administratzailearen alde sakrifikatu behar badu, hemen nago ni, prest nago!

Horren ateraldi melodramatikoaz barre egin ordez, haserretu egin zen Montalbano bere barruan. Une hartan kontu-administratzailea bere aurrean eduki izan balu, pozik hautsiko lizkioke muturrak.

–Ez gaitezen hasi erokeriak esaten! Hemen ez da inor sakrifikatuko!

Eta gero, topografoarengana itzulirik, inprobisatzen hasi zen.

–Barkatu, Garzullo jauna, baina non zeunden bart arratsean?

–Eta zer arraio axola dizu zuri? –erantzun zion agureak, liskarti.

–Zure onerako, esadazu.

Topografoak ezpainak estutu zituen, baina azkenean ahoa zabaltzea erabaki zuen.

–Atzo bertan itzuli nintzen hemengo etxera. Lau hilabete igaro ditut Palermoko ospitalean; han jakin nuen kontu-administratzaileak nire diruak, bizitza osoa lanean emanda irabazitako guztia, hartuta ihes egin zuela.

–Bart gauean ez zenuen telebistarik piztu, beraz?

–Ez nuen gogorik ergelkeriak entzuten egoteko.

–Horregatik ez dakizu ezer! –esan zuen Montalbanok, garaipenez.

–Zer jakin behar nuen, bada? –galdetu zuen Garzullok durduzaz.

–Gargano kontu-administratzailea atxilotu egin dutela.

Begi-ertzetik Mariastellari begiratu zion. Oihuren bat, erreakzioren bat, edozein, espero zuen, baina emakume hura geldirik geratu zen, estatua bat bezala, nahastuta areago konbentziturata baino.

–Benetan? –galdetu zuen topografoak.

–Zin egiten dizut –erantzun zion, antzezle handien gisan, Montalbanok–. Atxilotu egin dute eta hamabi maleta handi harrapatu dizkiote, diruz bete-beteak. Gaur goizean bertan hasiko dira, Montelusako prefekturan, hartzekodunei dirua itzultzen. Baduzu Garganori emandako diruaren agiria?

–Jakina! –erantzun zion agureak, libre zuen eskuaz diru-zorroa gorde ohi den jakako patrika joz.

–Orduan arazorik ez dago, dena konponduta dago
–esan zuen Montalbanok.

Agurearen ondora joan zen, errebolberra eskutik
kendu zion, eta erakusmahaiaren gainean utzi zuen.

–Joan naiteke bihar prefekturara? –galdetu zuen
Garzullok–. Ez nago oso ongi.

Eta lurrera eroriko zen, komisarioak aurea hartu eta
eutsi izan ez balio.

–Fazio eta Galluzzo, mugitu, sartu oraintxe bertan
autoan eta eraman ospitalera.

Bien artean agurea jaso zuten. Komisarioaren aurre-
tik igarotzean, ozta-ozta esan zuen:

–Mila esker guztiagatik.

–Besterik behar genuen –erantzun zion Montalba-
nok, doilorretan doilorrena sentituz.